# JARDUERA: HONDAKINAK

HARTZAILEAK: LEHEN HEZKUNTZA 1 – 2 mailak

DENBORA: 45 min.

HELBURUAK:

- Hondakinen sailkatzea ondo egitea ondoren hondakin bakoitzari tratamendu egokia emateko.
- Birziklatzen diren material ezberdinak izendatzea, taldeka sailkatuz.

EDUKIAK:

- Hondakinak, edukiontziak, birziklatzea.
- Birziklatzeko materialak bereiztea: plastikoa, papera, beira, organikoa..

METODOLOGIA:

- Irakasleak ikasle bakoitzari produktu eta materia ezberdinak emango dizkie, eta txandaka ume bakoitzak bere hondakina dagokion edukiontzira botako du.

GIDOIA:

- Ongi etorria
- Umeei azaldu egingo den ekintza:

**Zertarako sailkatzen ditugu zaborrak?**

# JARDUERA: HONDAKINAK

## Zertarako sailkatzen ditugu zaborrak?

Etxe guztietan, egunero zaborra sortzen dugu eta pilatzen joaten da. Lehenengo sailkatu zaborra eta sartu hondakin bakoitza dagokion edukiontzian.

Zabor poltsa beteta dagoenean, nora joaten da?

.......................................................................................................................................

.......................................................................................................................................

.......................................................................................................................................

Zer egiten da edukiontzi bakoitzeko zaborrekin?



TXURIA: ..................... URDINA: ..................... BERDEA: ..................... HORIA: .....................



MARROIA: ..................... ERREFUSA: ..................... PILAK: ..................... OLIOA: .....................

# ZER BOTA?
# NOLA?

Ikasleei emango zaizkie material ezberdin batzuk (kartoia, papera, kristala, ontziak, eta abar). Bakoitzak bere materiala bota beharko du dagokion edukiontzian.



# ZERTARAKO?

Sailkatu ondoren edukiontzietan jasotzen dira eta ondoren fabrika batera ematen dira **BIRZIKLATZEKO.**

Ekintza honekin era erraz batean azalduko zaie zer den **BIRZIKLATZEA:**

***Bota ditugun gauza hauekin beste gauza berri batzuk egitea.***